

**ACTA DE LA SESIÓN DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL
SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA**

25 DE FEBRERO DE 2016

En la Sala de Sesiones de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Santurtzi, siendo las diez horas y cinco minutos del día de la fecha antes indicada, previa convocatoria al efecto realizada por el Sr. Presidente, se reúne en sesión extraordinaria el Consejo Rector del Organismo Autónomo con la siguiente composición:

Presidente: D. Danel Bringas Egilior

Vocales asistentes:

- D. Itsazain Ortolatxipi Ibáñez. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos
- D^a. Cristina Senarriaga Rojo. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos
- D. Jonatán Sánchez Fernández. Grupo Sí Se Puede Santurtzi
- D. Endika García Sáez. Grupo Municipal Bildu
- D. José Miguel Lucena. Grupo Municipal Socialista
- D. Luis Ángel Urdiales Villanueva. Grupo Municipal PP

Interventor Delegado: D. José Miguel Paredes Cisneros.

Directora del O.A.: D^a Cristina García Pérez.

Secretario académico del O.A.: D. Alfonso Sánchez Frutos.

El Sr. Presidente informa que el Secretario Delegado, Sr. José Fernando García Pañeda, no asiste hoy por ser su día libre. En su lugar, recogerá el acta el Sr. Sánchez quien es el nuevo Secretario Académico del O.A.

El Sr. Presidente abre la sesión para tratar los asuntos incluidos en el orden del día de la convocatoria.

1. Asuntos de presidencia

El Sr. Presidente recuerda a los asistentes que nos encontramos en una situación transitoria debido a que D. Pedro Lonbide, director del O.A., cogió una excedencia hasta el 30 de junio y, por tanto, podría volver. Ante esto, hemos actuado creando la figura de comisión de servicios y el anterior secretario académico, D. Abel Camacho, pasa a desempeñar un puesto que depende de la dirección del Euskaltegi y cuyas funciones son el mantenimiento de la red local, el mantenimiento de la aplicación web, el mantenimiento del aula virtual y de responsabilidad didáctica.

Sigue recordando el Sr. Presidente que hubo una votación en el Euskaltegi, para elegir director

y secretario, y que el acta de dicha votación se les adjunto a los asistentes junto a la convocatoria de esta reunión. Remarca la importancia de la votación que refleja la opinión del claustro, y comenta que junto con la dirección del centro tiene mucha importancia el secretario académico ya que este trabaja estrechamente con los profesores.

A continuación le pasa la palabra a D^a Cristina García, para que haga su presentación. Esta comenta que los profesores vieron la necesidad de tener un director y un secretario para hacer frente a los problemas que estaban apareciendo en el Euskaltegi y a los que no se estaba dando respuesta, ya que se había creado un vacío que en principio debía de cubrir D. Abel Camacho pero que no ha sido así. Reunidos los profesores, estuvieron de acuerdo en que había muchas cosas que cambiar en el Euskaltegi y que para eso se necesitaba una nueva dirección. Comenta que entre todos los profesores han hecho un análisis de los cambios que necesita el Centro, tanto en el ámbito físico del edificio como en el académico. A partir de ahí han elaborado una lista de proyectos y esta semana han empezado a trabajar en ellos.

Toma de nuevo la palabra el Sr. Presidente y comenta que cuando se hagan los presupuestos hay que aprobar la RPT y la plantilla. Dice que cree recordar que en la RPT el puesto de secretario académico es por concurso y que, quizá, hay que plantear la opción de que ese puesto sea de libre designación oído el claustro. Ya que no tiene mucho sentido que dentro de un equipo directivo la persona de confianza de esa dirección sea alguien con quien no tenga mucha afinidad. De la misma manera que se hizo en la Escuela de Música, es importante que el secretario tenga el respaldo del claustro y la confianza del director.

D^a Cristina comenta que antiguamente el director se elegía cada tres años y después se cambio, pasando a tener un director permanente; pero aún así, según el reglamento de régimen interno del Euskaltegi, el secretario académico lo seguía eligiendo el director oído el claustro; no era por concurso. No sabemos en que momento se cambio eso.

El Sr. Urdiales pregunta al Sr. Presidente si tenemos algún informe del Régimen Interior en el cual se diga que el procedimiento seguido es el correcto; es decir, que a pesar de existir unas votaciones, pueda el presidente mediante una resolución nombrar a quien estime oportuno en comisión de servicios para esos puestos. El Sr. Presidente contesta que el Secretario Delegado, Sr. García Pañeda avala el procedimiento.

El Sr. Lucena pregunta a ver si no depende para nada del Régimen Interior y el Sr. Presidente contesta que no depende para nada, que somos autónomos.

El Sr. Urdiales pregunta a ver si en lo que respecta al aspecto académico se ha empezado ya a elaborar algún plan de trabajo para desarrollar en los próximos cursos. La Sra. García contesta que el Secretario Académico ya ha empezado a elaborar un plan de coordinación, tanto entre profesores del mismo nivel como entre distintos niveles, y un plan de evaluación para las nuevas titulaciones A1, A2 y B1 que hay que dar este año por primera vez. Explica que estas dos son en este momento nuestras prioridades más urgentes, junto con la adaptación del curriculum, trabajo este que tendremos que acometer en breve.

El Sr. Presidente vuelve a recordar que en todo caso esta es una situación transitoria, pues es posible todavía que el Sr. Lonbide regrese en junio, en cuyo caso se reintegraría a su puesto de trabajo; pero aún así, es evidente que es necesario tener elaborado un plan pedagógico.

El Sr. Lucena se refiere ahora a las necesidades físicas del edificio del Euskaltegi, pide que se elabore un listado de dichas necesidades y que se informe de cuáles son las más urgentes. La Sra. García contesta que ya está realizando ese listado y ahora hay que empezar a estudiar el presupuesto necesario para cada actuación y considerar las que se pueden realizar de acuerdo al dinero del que disponemos y la urgencia de cada una.

El Sr. Lucena solicita que se les proporcione el informe del Secretario Delegado, a lo que el Sr. Presidente accede.

El Sr. Sánchez Fernández tras felicitar a D^a Cristina y D. Alfonso, se interesa por los presupuestos del Euskaltegi y pregunta cuándo se les van a proporcionar. El Sr. Presidente contesta que se entregarán cuando el Procedimiento de Aprobación de Presupuestos del Ayuntamiento se entregue, se espera que para el 1 de marzo. Añade además que El Procedimiento de Aprobación de Presupuestos de los Organismos Autónomos no es como en el resto de áreas, en que informa y dictamina la Comisión de Hacienda, sino que los O.A. tienen suficiente entidad para dictaminar ellos y, además, junto a ello, en el orden del día hay que aprobar la plantilla y la RPT.

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Presidente da por concluida la sesión siendo las diez horas y veintitrés minutos del día señalado en el encabezamiento.

El Presidente
D. Danel Bringas Egilior

El Secretario adscrito
D. Alfonso Sánchez Frutos

SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAREN AKTA

2016ko OTSAILAREN 25a

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamarrak eta bost direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and. Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea

Jonatan Sánchez Fernández jn. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea

Endika García Saez jn. EHBildu Udal Taldea

José Miguel Lucena jn. Euskal Sozialistak Udal Taldea

Luis Ángel Urdiales Villanueva jn. PP Udal Taldea

Behin-behineko kontu-hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Autonomiadun Erakundearen Zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Autonomiadun Erakundearen Idazkari Akademikoa: Alfonso Sánchez Frutos jn..

Kontseiluburu jaunak jakinarazi du Jose Fernando García Pañeda idazkari eskuordetua ez dela gaurko bileran egongo egun librea duelako. Bere ordez Alfonso Sánchez jaunak jasoko du akta, bera baita Autonomiadun Erakundeko Idazkari Akademiko berria.

Kontseiluburu jaunak saioari hasiera eman dio eta deialdiaren gai zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. Kontseiluburuaren gaiak

Kontseiluburu jaunak gogorarazi du gaur egungo egoera behin-behinekoa dela, Pedro Lonbide jaunak, Autonomiadun Erakundeko zuzendariak, ekainaren 30era arteko eszedentzia eskatu duelako eta beraz, itzul litekeela. Hori ikusita, zuzendari eta idazkari akademiko berriak izendatu dira zerbitzu-eginkizunetan eta aurreko idazkari akademikoa, Abel Camacho jn, Euskaltegiko zuzendaritzapeko lanpostu batean arituko da, zeinen funtzioak euskaltegiko sarea,

web aplikazioa eta gela birtualaren mantenua izango diren, horrez gain ardura didaktikoa ere izango duelarik.

Gaineratu du Euskaltegian zuzendari eta idazkari akademikoa aukeratzeko bozketa egin zela eta bozketa horren akta kontseilukideei helarazi zitzaizela bilera honetarako deialdiarekin batera. Bozketaren garrantzia nabarmendu du, bertan argi azaltzen baita zein den klaustroaren iritzia. Horrez gain, esan du zentroko zuzendaria ez ezik, idazkari akademikoaren figura ere garrantzitsua dela, honek zuzenean egiten duelako irakasleekin lan.

Hori esanda, hitza Garcia andreari eman dio bere buruaren aurkezpena egin dezan. Honek esandakoaren arabera, langileek zuzendari eta idazkari akademikoa izateko beharra ikusi zuten Euskaltegian agertzen hasiak ziren arazoei aurre egiteko, orain arte ez zaie eta erantzunik eman. Izan ere, kudeaketarik gabeko aldia egon da, zeinen ardura, printzipioz, Camacho jaunari zegokion, nahiz eta horrela gertatu ez den. Irakasleak bilduta, ados egon ziren Euskaltegian kontu asko aldatu behar zirelako iritziarekin eta horretarako zuzendaritza berria behar zela pentsatu zuten. Gaineratu du irakasle guztien artean zentroak, bai eraikinaren arlo fisikoan eta bai arlo akademikoan, behar dituen aldaketen azterketa egin dutela. Hortik abiatuta, egitasmo zerrenda egin dute eta aste honetan bertan hasi dira horretan lan egiten.

Kontseiluburu jaunak berriro hartu du hitza eta esan du aurrekontuak egiten direnean, lanpostuen zerrenda eta langileen plantilla onartu beharko direla. Adierazi du uste duela Lanpostuen Zerrendan idazkari akademikoaren lanpostua lehiaketan izendatzekoa dela, eta beharbada planteatu beharko litzatekeela lanpostu hori, klaustroaren iritzia entzun ondoren, izendapen askearen bidez izendatzeko aukera, ez baita oso zentzuzkoa zuzendaritza taldea osatzen duten bi lagunen artean afinitate handirik ez egotea, lanerako ez baita egokia. Musika Eskolan egin bezala, garrantzitsua da idazkari akademikoak klaustroaren babesa eta zuzendariaren konfiantza izatea.

Garcia andreak jakinarazi du lehen zuzendaria hiru urtean behin aukeratzeko zela baina gero, hori aldatu eta behin betiko zuzendaria izendatu zen; hala eta guztiz ere, Euskaltegiaren barne-araudiaren arabera, zuzendariari zegokion idazkari akademikoa aukeratzeko, klaustroaren iritzia entzun ondoren; beraz, garai hartan ez zen lehiaketaren bidez aukeratzeko. Langileek ez dakite aldaketa hori noiz egin zen.

Urdiales jaunak galdetu du ea Barne Araubide arloko txostenik dagoen, adieraziz jarraitutako prozedura zuzena dela, hau da, txosten bat non esaten den nahiz eta bozketa egon, presidenteak ebazpen baten bidez lanpostu horietarako egoki deritzenak izendatu ditzakeela zerbitzu-eginkizunetan. Presidente jaunak erantzun dio esanez García Pañeda jaunak, idazkari eskuordetuak, prozedura zuzena dela ziurtatu duela.

Lucena jaunak galdetu du ea Barne Araubide arloak ez duen gai honetan eskumenik. Presidente jaunak ezetz erantzun dio, ez dagoela horren menpe autonomiadun erakundea delako.

Urdiales jaunak galdetu du ea alderdi akademikoari dagokionean hasi den hurrengo ikasturteetan garatuko den lanerako planen bat. García andreak erantzun dio esanez idazkari

akademikoa dagoeneko hasia dela plan bikoitza egiten: batetik, koordinazio-plan bat, non maila bera ematen duten irakasleen zein maila desberdinen arteko koordinazioa landuko den; eta bestetik, ebaluazio-plana aurten lehenengoz emango diren A1, A2 eta B1 titulazio berrien nondik norakoak zehazteko. Azaldu duenaren arabera, aipatutako bi horiek dira gaur egun euskaltegian dauden lehentasunak, horiekin batera kurrikulumaren egokitzapena ere jorratuko da, laster helduko zaio lan honi.

Presidente jaunak berriro gogorarazi du edonola ere, egoera behin-behinekoa dela, gerta daitekeelako Lonbide jn. ekainean itzultzea. Horrela balitz, berriro hartuko luke bere lanpostua; hala ere, argi dago beharrezkoa dela plan pedagogikoa eginda izatea.

Lucena jaunak Euskaltegiko eraikinaren behar fisikoak aipatu ditu. Behar horien zerrenda eskatu du, eta gaineratu du jakin nahiko lukeela zein diren premiazkoenak. Garcia andreak erantzun dio esanez zerrenda eginda dagoela eta orain jarduketa bakoitzerako behar den aurrekontua aztertzen hasi beharko dela, eta zenbat diru daukagun eta behar horien premia ikusita, zer egin daitekeen pentsatuko dela.

Lucena jaunak idazkari eskuordetuak idatzitako txostena helaraz dakiela eskatu du. Presidente jaunak horrela egingo duela esan du.

Sánchez Fernández jaunak Garcia and. eta Sánchez jn. zoriondu ondoren, Euskaltegiko aurrekontuak noiz igorriko zaizkien galdetu du. Presidente jaunak erantzun dio esanez Udalaren aurrekontuak onartzeko prozedura jasotzen denean igorriko dela eta martxoaren 1erako egotea espero dutela. Gaineratu du Autonomiadun Erakundeek aurrekontuak onartzeko prozedura ez dela Udaleko ohiko arloetakoa bezalakoa, bertan Ogasun Arloko batzordeak informatu eta irizpena ematen du eta, baina Autonomiadun Erakundeek eskumena dute euren aurrekontuen inguruko irizpena emateko, eta gainera, horiekin batera, gai zerrendan langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda ere onartu behar dira.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasiera zehaztutako egunean, goizeko hamarrak eta hogeita hiru minutu direnean.

Presidentea

Danel Bringas Egilior

Ordezko idazkaria

Alfonso Sánchez Frutos